

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLA 2020ko MARTXOAREN 26a

2020ko MARTXOAREN 26an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **biola** espezialitatean. Bertan esku hartuko dute Natalia Tchitch eta Josep Puchades irakasleek eta Musikeneko biola ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten biola ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten biola ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Zein da jardunaldiaren helburua?

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den errepertorioa barne.
- Ikaslearen mailaren balorazioa egitea, proposatzen dituen obrak entzunez.
- Musikenek bertako ikasleekin egiten den lana erakustea.

Lan-egitasmoa

10.00-11.00: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Biola espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

11.00-11.45: Musikeneko biola ikasleen emanaldia

12.00-14.30: Natalia Tchitch irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat.

15.30-18.00: Josep Puchades irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat.

18.00: Jardunaldiaren amaiera.

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750 E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Hari instrumentuen Departamentu buruarekin: Marta Moll mmoll@musikene.eus